



IRUDIAK GORDE ETA PARTEKATZEKO WEB ZERBITZUA SERVICIO WEB PARA ALMACENAR Y COMPARTIR IMÁGENES

49

DEFINIZIOA Zer da?

Izen hori ematen zaie kapturatzen eta/edo editatzen ditugun irudiak gorde eta beste batzuekin partekatzea ahalbidetzen diguten webguneei.

DEFINICIÓN ¿Qué es?

Se denominan así a los sitios web que nos permiten almacenar y compartir con otras personas las imágenes que capturamos y/o editamos.

BALIABIDEAREN ERABILERA Nola erabiltzen da?

Zerbitzu hori ematen duten webguneek irudiak bistaratu eta behera kargatzea ahalbidetzen dute; batzuetan, ez da beharrezkoa erabiltzailea erregistratzea irudiak argitaratzeko. Erregistratuz gero, honako aukera hauek daude: album publikoak edo pertsona jakin batzuekin partekatzeko albumak sortzea, irudiak editatzea eta konposizioak sortu, sailkatu eta etiketatzea.

Albuma partekatzeko, zuzeneko lotura bidali behar da, posta elektronikoz edo foro baten edo blog baten bitartez, besteak beste. Albuma norbaitekin partekatzen dugunean —hala nola ikasleen familiekin—, ikasleak loturaren bitartez sartzen dira albumean eta bertan argazkiei buruzko iruzkinak egiteko aukera dute.

Zenbait kasutan, web-zerbitzutik irudia editatzeko programa jakin bat behera karga daiteke [[Info gehiago 33. fitxan](#)], ordenagailuko disko gogorrean (edo bestelako memoria-unitateetan) gordetako irudien kudeaketa eta erreferentziazko webgunera kargatzea errazteko.

**UTILIZACIÓN
 RECURSO**
¿Cómo se usa?

Las páginas web que ofrecen este servicio permiten visualizar y descargar imágenes, en algunos casos es posible publicar las mismas sin necesidad de registrarse. Mediante el registro se puede: crear álbumes públicos o solo para compartir con personas específicas, editar las imágenes y crear composiciones, clasificarlas y etiquetarlas.

Un álbum se puede compartir enviando un enlace directo a través del correo electrónico, foro, blog, etc. Cuando compartimos un álbum por ejemplo con las familias de los alumnos, éstos acceden al álbum a través del enlace y pueden comentar las fotografías.

En algunos casos desde el mismo servicio web es posible descargar un programa de edición de imagen [[Más info en ficha 33](#)] que facilita la gestión de las imágenes almacenadas en el disco duro (u otras unidades de memoria) del ordenador y su posterior subida al sitio web de referencia.

**IKASGELARAKO
 GOMENDIOAK**

Webgune jakin batean irudiak kargatu baino lehen, gehieneko tamainari buruzko baldintzak eta irudiei eman nahi diegun konfidentzialtasun-maila hartu behar ditugu kontuan. Tamainari dagokionez, irudia sortu eta editatzeko hainbat programak [[Info gehiago 33. fitxan](#)] artxiboen blokeen izena edo tamaina modu automatizatua aldatzeko aukera ematen du. Hortaz, oso tresna erabilgarriak dira material grafiko ugari erabiltzen denerako.

Gogoan izan behar dugu irudi propioak edo erabilera librekoak baino ez ditugula kargatu edo editatu behar.

Aukera horiez gain, “ahots-hariak” sor daitezke. Tresna honek ingurune multimedial batean eztabaidak izatea eta kargatutako irudiei eta/edo bideoei iruzkinak eranstea ahalbidetzen du. Azken emaitza kontatutako diapositiba-aurrezpen baten antzekoa da.

Familiekin eta hezkuntza-komunitateko gainerako kideekin partekatzeko baliabide interesgarria da. Azkenik, hari gabe konektatzen den gailu eramangarri baten eta ordenagailu baten arteko edukiak sinkronizatzeko eta irudiak gorde eta partekatzeko aukera ematen duten web-esparruak nabarmendu behar dira, hala nola Nokia-ren Ovi izenekoak (<https://files.ovi.com/sas/about>).

RECOMENDACIONES PARA EL AULA

Antes de cargar imágenes en un sitio, debemos tener en cuenta los requisitos máximos de tamaño y el grado de confidencialidad que queremos darle a las mismas. En cuanto al tamaño, existen programas de creación y edición de imagen [\[Más info en ficha 33\]](#) que ofrecen la posibilidad de modificar las dimensiones o nombre de bloques de archivos de manera automatizada, lo cual supone una herramienta de utilidad si se maneja una gran cantidad de materiales gráficos.

Debemos recordar que solo debemos subir o editar imágenes propias o de uso libre.

Otra opción disponible es la creación de "hilos de voz". Esta herramienta permite mantener debates en un entorno multimedial e ir agregando comentarios a las imágenes y/o videos subidos. El resultado final es similar a una presentación de diapositivas narrada.

Es un interesante recurso para compartir con las familias y demás miembros de la comunidad educativa. Finalmente, cabe destacar los espacios web orientados a sincronizar contenidos entre un dispositivo portátil con conectividad inalámbrica y un ordenador, que permiten almacenar y compartir imágenes , como por ejemplo, Ovi de Nokia (<https://files.ovi.com/sas/about>)

GOMENDATUTAKO GUNEAK Non aurki dezaket?

Picasa

<http://picasaweb.google.es>

Picasaren web-albumek argazki digitalak antolatu eta aldatu eta, gero, lineako albumak sortzea ahalbidetzen dute, ondoren album horiek lagun, senitarteko eta gainerako jende guztiarekin partekatzeko. Abantaila handi bat du, doako kontuetarako eskaintzen duen tokia, alegia. Kasu honetan **1 GB** du.

Flickr

<http://www.flickr.com/>

Zerbitzurik ezagunenetako bat da, erraz eta modu intuitiboan erabiltzekoa. Doako bertsioan, **hilean 100 MBko tokia ematen du gehienez irudiak gordetzeko**. Flickr-en bilaketa-sistemak etiketen, dataren eta Creative Commons en lizentzien arabera bilatzeko aukera ematen du.

Photobucket:

<http://photobucket.com/>

Doako zerbitzua da; **irudiak eta bideoak** gordetzeko 1 GBko tokia eta hileko transferentziako 25 GBkoa ematen du. Aldiro 20 irudi ere karga daitezke.

Imageshack

<http://imageshack.us/>

Ez da beharrezkoa aldez aurretik erregistratzea; irudiak gordetzea oso erraza da.

Ipernity

<http://www.ipernity.com/>

Irudiak ostatatzea ahalbidetzeaz gain, blogak, dokumentuak, bideoak eta audio-artxiiboak ostatatzeko aukera ere ematen du. Hilean gehienez 200 MB kargatzea ahalbidetzen du eta kargaldi bakoitzean 90 MB. Erabiltzaileak posta-kontu baten bitartez edo OpenID zerbitzariren baten bitartez identifikatu behar du.

Pix.ie:

<http://pix.ie/>

Hilean gehienez 500 MB eta urtean 6 GB doan kargatzea eta irudiak senitarteko eta lagunekin partekatzea ahalbidetzen du. Argazki bakoitza hainbat tamainatan ikus daiteke, dagokion kodearekin.

Dumtp:

<http://www.dumtp.com/img/>

1 GBko gordetzeko tokia eskaintzen du. **Irudiak zip formatuan** (trinkotuak) edo paneletik aldiro 10 irudi kargatzeko aukera ematen du. Irudi bakoitza 3 MBkoa izango da eta 2500 x 2500 px-koa gehienez ere.

**SITIOS
RECOMENDADOS**
¿Dónde lo
encuentro?

Ahots-hariak

VoiceThread

<http://voicethread.com>

VoiceThread multimedia ingurune batean eztabaidak izateko tresna bat da; eztabaidak aurkezpen, bideo edo irudi baten inguruan egin daitezke. Parte-hartzaileek ikusi edo entzungo dituzte eta ondoren iruzkinak egin ahal izango dituzte, telefonoa, webcama edo mikrofonoa erabiliz edo testu edo artxibo bat kargatuz. Tresna honek elkarriketak denbora errealean egiteko aukerarik ematen ez duen arren, lankidetzeta eta eztabaida sustatzen ditu. Doako erregistroak hiru ahots-hari egitea ahalbidetzen du.

Bubblesnaps

<http://www.bubblesnaps.com/>

Banda komikoetan bezalaxe, argazkiei bunbuilo dibertigarriak jarri ahal izango zaizkio **Bubblesnaps** erabiliz. Horretarako, erregistratuta egon behar da eta ondoren jpg irudi bat kargatu beharko da. Irudi horri erabilgarri dauden bunbuiloetako bat gehitu eta barnean testua idatzi behar da.

Picasa

<http://picasaweb.google.es>

Los Álbumes web de Picasa permiten organizar y modificar las fotografías digitales y luego crear álbumes en línea para compartirlos con amigos, familiares y el resto del mundo. Una gran ventaja es el espacio que ofrece para cuentas gratuitas, en este caso de **1 GB**

Flickr

<http://www.flickr.com/>

Es uno de los servicios más populares, de uso fácil e intuitivo. En versión gratuita, ofrece **hasta 100 MB al mes de espacio para almacenar** imágenes. El sistema de búsquedas de Flickr permite buscar por etiquetas, por fecha y por licencias de Creative Commons.

Photobucket:

<http://photobucket.com/>

Servicio gratuito que proporcionan 1 GB de espacio para almacenamiento de **imágenes y videos**, 25 GB de transferencia mensual. Se puede subir hasta 20 imágenes cada vez.

Imageshack

<http://imageshack.us/>

No requiere registro previo, el almacenamiento de imágenes es muy sencillo.

Ipernity

<http://www.ipernity.com/>

No sólo permite alojar imágenes, sino también blogs, documentos, vídeos y archivos de audio. Permite subir hasta 200 MB al mes, con 90 MB en cada subida. La identificación se realiza por medio de una cuenta de correo o a través de algún servidor OpenID.

Pix.ie:

<http://pix.ie/>

Permite subir hasta 500 MB mensualmente, 6 GB de espacio gratuito al año, y compartir las imágenes con familiares y amigos. Cada foto puede verse en diferentes tamaños con el código respectivo.

Dumt:

<http://www.dumt.com/img/>

Proporciona 1 GB de almacenamiento, pudiendo cargar las **imágenes en formato zip** (comprimidas), o 10 imágenes cada vez desde el panel. Cada imagen puede tener como máximo 3 MB, con 2500 x 2500 px como límite.

Hilos de voz

VoiceThread<http://voicethread.com>

VoiceThread es una herramienta para mantener debates en un entorno multimedia, tales como una presentación, vídeo o imagen. Los participantes pueden verlos o escucharlos y luego comentarlos utilizando un teléfono, web cam, micrófono, texto o subir un archivo. Aunque esta herramienta no facilita conversaciones en tiempo real, promueve la colaboración y el debate. El registro gratuito permite realizar tres hilos de voz.

Bubblesnaps<http://www.bubblesnaps.com/>

Como en las tiras cómicas, las fotografías podrán tener una serie de divertidos bocadillos gracias a **Bubblesnaps**. Para ello se debe estar registrado y luego subir una imagen jpg a la que se le añade algunos de los bocadillos disponibles y se escribe en su interior un texto.